


...elkarrizketa



Iñigo Olaetxea
• BERTSOLARIA •

«Bertsolaritza
molde berrietara
egokitzen ari da»

Bertsolaritzaren etorkizunari buruz hizketan izan ginen Bertsoaroaren X. edizioaren antolatzailearekin.

■ **Aurten lehen aldiz zu arduratu zara Bertsoaroaren antolakuntzaz.**

Aurten Nafarroako Bertsolarien Txapelketaren antolakuntzan ere ibili nintzen, eta lana da, baina gustukoa. Aurtengo edizioan azpimarratzekoa da Felix Iñurrategiri egingo diogun omenaldia, bertso paper saioa prestatu dugulako, bertsolaritza munduan orain lantzen ez dena.

■ **Nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna Nafarroan?**

Nire ustez bertsolaritzaren etorkizuna ona da. Azkeneko urteotan, bertso txapelketan partaidetza gero eta handiagoa da. Bestalde, nire ustez bertso eskolak bere fruituak ematen ari da.

■ **Zein bertso mota da momentu honetan arrakastatsuen?**

Ni gaztearen bertso estiloaren jarraitzailea naiz, hau da, musika edo antzerkiarekin uztartuta dagoena, bide berriak jorratzen ari dira. Bertsolaritza molde berrietara egokitu beharko da.

■ **Eta zein da joera?**

Mantentzearena. Azken urteetan duela bost urte baino saio gutxiago egiten dira, baina udako saioak eta txapelketa mantentzen dira. Azken honetan, gainera gero eta jende gazteagoak hartzen du parte.

Eva Aranguren
IRUÑEA

...esaera

«Si señor! Ez dago etxean inor»

...hizpideak

**ELAren eragozpenak
Ibarretxeren manifestazioari**

■ Ibarretxeren deialdiak Eusko Jaurlaritza sostengatzen duten alderdiez gain, PSE-EE, IU, CDN eta UA alderdien eta Bakea Orain, BAK, Elkarri, UGT, Enba bezalako erakunde eta taldeen sostengua jaso duen bitartean, ELAk ez du bat egin manifestazioaren deialdiarekin. Zer esana emango duen hutsunea izango da, dudarik gabe. Euskal gizartearen «ETA-ren krimenek eragiten duten arbuio eta haserrearekin» bat datorrela argi adierazi ondoren, bakea ETaren bortizkeria eta

kale erasoaren desagerpena baino gehiago dela argudiatu du ELAk. Euskal gatazkaren sakoneko arazo politikoak elkarrizketa bidez konpondu behar diren eskabidea alde batera uztea salatu eta «atzerapausotzat» jo du sindikatuak. Norabide horretan Ibarretxek eta EAJk emandako pausoak gatazka desitxuratzen du, besteak beste, indarkeria mota bat baino ez duelako ikusten, Eusko Legebiltzarreko bost orduko eztabaidan besterik ez aipatu izanak agerian utzi duenez.

Sinesgarria al da Goñirena?

■ Mikel Goñi pilotariak atzo hitz egin zuen aspaldiko partez, eta «gauzak argi» dauzka. Azken asteak isilpean entrenatzen eta gogoeta egiten jardun du, eta ondo egin du, biak behar zituelako, ezin zuelako segitu lehen bezalako egoera lotsagarrian. Dena den, ez da lehen aldian berriro prest dagoela esaten duena, eta Goñik berak irabazi beharko du sinesgarritasuna, jendeak eman ez diolako orain deus emango.

Forcem, Madrilen irtenbidea

■ Espainiako Gobernuak garbi utzi du berriro Juan Carlos Aparicio Lan eta Gizarte Segurantzaren ministroaren ahotik, ika-mika politikoek ondorio ekonomikoak ekarriko dituztela Hobetuz Fundazioari dagokionean. Ondorio ekonomikoak baina, ez ditu Eusko Jaurlaritzak soilik jasango; kaltetu nagusienak langileak eta formazio ikastaroak antolatu ezingo dituzten enpresariak izango dira. Izan ere, etengabeko lan presta-

**Bahimenduaren
arintze ahula**

■ EEBBetako Senatuak baiezkota eman dio, Kubari elikagaiak eta botikak saltzeko debekua kentzeko proiektuari. Orain, Bill Clinton presidentea hartu eta lege bihurtuko du. Neurri horren bidez, 1962tik indarrean dagoen bahimendua arindu egingo dela esan dute EEBBek, baina benetan, ezer gutxi aldatuko da, aldi berean, Kubari mailegu publiko zein pribatuak ematea galarazi baitute. Habanaren iduriko, arindu orde zegoen egin dute bahimendua.

...pertsonaiak



XABIER MENDIGUREN • Euskararen egungo egoeraz mintzatu zen atzo Bilbon Kontseiluko idazkari nagusia. Datuak baikorrak zirela zioen arren, hizkuntza lan munduan sartzearen beharra azpimarratu zuen.



DIEGO GARCIA • Newcastle-ko (Ingalaterra) maratoi erdia egingo du hurrengo igandean korrikalari gipuzkoarrak. Maratoirik gehiago ez zuela egingo esan bazuen ere, eskaintza «ederrari» ezin diola uko egin adierazi du.



EDU MURUAMENDIARAZ • Bergarako dantzariak zuzentzen duen Aukeran konpainiak, orain arte egindako bost koreografiak taularatu ditu ordu eta erdiko ikuskizunean, gaur gauean Bergarako frontoian.

...datua

17.500 milioi pezeta lortu ditu aurten fakturazioan Arrasate Kooperatiben Korporazioko Maier taldeak. Datozen lau urteetan bikoiztu egin nahi dute fakturazioa.

...adierazpena

«Kosovon egingo diren hauteskundeek serbiarren aurkako garbiketa etnikoa legeztatuko dute»

•
Vojislav Kostunica
Jugoslaviako presidentea

... seiko urrea

• JOSE MARI AGIRRE •

Argi indarraren indarra

lehiakor izaten jarraitu nahi badute. Tamaina handiagotzeak indarra eta aukera ematen dietelako, oinak sendotzeko eta aurkarietatik hartzak erakusteko.

Tamaina beraz, balio estrategiko bihurtu da eta ondorioz sortzen diren parte-hartze gurutzatuek sekulako indarra eta boterea ematen diote elkarre berriari. Izugarriko armiarma-sareak egiten eta



berregiten ari dira sektore finantzario, energetiko, telefoniko eta teknologikoen artean.

Baditu, ordea, arriskuak ere. Lehenik eta behin monopolioak sortzeko arriskua, enpresen arteko konpetentzia ezabatzeko arriskua eta hori gerta ez dadin beharrezkoa da sektore bateko baliabide guztiak, kasu honetan argindarra produzitu eta banatzea, esku bakar batean ez jar-

tzea. Monopolioak preso dauzka bezeroak, eskaintza bakarra dagoenean, eta argindarrarekin gertatzen den bezala, beste aukerarik ez dagoenean. Eta hemen gobernarietara dagokie bezeroen, hiritarren eskubideak zaintzea.

Badira beste kontsiderazio batzuek ere fusio baten inguruan ahortzi ezin direnak: bertako langile, bezero eta akzionista txikien eskubide eta bermeak. Halaber, fusio hauek ez ohi dira interes politiko-ekonomikorik gabeak. Urrutirago joan gabe, fusioa burutzen bada Madrilen jarriko dute enpresa berriaren egoitza eta Euskal Herriak, gutxienez, bertan zegoen aktibo bat galduko du.